



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2023/12/13



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31731 Lesaka (Nafarroa)
427 P0115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
lesaka@lesaka.eus

NIF: P3115200B

SERVICIOS CULTURALES Y DEPORTIVOS

Espedientea 54271C

OLENTZERO ETA JAIOTZEN LEHIAKETA 2023

Plaza Zaharrean, abenduaren 24ean, 12:00etan

ARAUTEGIA

- A – 10 urte arteko haurrak**
- B – 11 urtetik 15 urtetarainoko haurrak**
- C – 16 urtetik goitikoak**

Olentzeroak eta Jaiotzak 11:30etarako egon beharko dira plazan. Euria eginez gero, udal pilotalekuan egingen da.

Lehiaketan aurkeztuko diren taldeak guttienez 6 pertsonen osatuak izanen dira eta partaide guztiak ohiturazko janzkera soinean eramanen dute.

Taldeak batek hurrengo kategoriko adina baldin badu, automatikoki hurrengoan lehiatuko da.

Olentzero talde bakoitzak 2 kanta kantatuko ditu: bata, nahitaez **“OLENTZERO BURU HAUNDIA”** izanik eta bigarrena talde bakoitzak aukeraturikoa.

Derrigorrez Olentzeroa bizkar gainean izanik kantatu beharko da.

Epaimahaia, herriko bederatzi pertsonen osatua egonen da. Olentzeroa edo Jaiotza, kanta eta janzkera baloratuko dituzte. Epaimahaia kioskoan egonen da eta honen espazioa errespetatu beharko da beraien eginbeharra oztopatu gabe. Epaimahaiak, kantua baloratuko du (10 puntu gehienez), Olentzeroa-Jaiotza (10 puntu gehienez) eta janzkera (8 puntu gehienez). Partahartzaileen janzkera baloratzerakoan, ondokoak hartuko dira kontutan; baserritarren arropa janztea, tokilla edo bizkalarruarekin, buruan zapia edo zapelarekin eta abarka eta zapinak eramatea.

Lehiaketaren ondotik, bertan parte hartu nahi ez dutenentzat, jaialdiko atala izanen da. Atal honetan taldeek kantatu eta beraien Olentzeroa edo Jaiotza erakusteko aukera izanen dute, betiere lehiatu gabe. Atal honetan parte hartu nahi duenak, goizean, lehiaketa hasi aitzin, antolakuntzari jakinaraztea eskertuko da.

Ilunabarreko 18:00etan C kategorian irabazi duen Olentzeroak kalejira egingen du herriko karraketan barna Lesakako Musika Bandak lagundurik.

Lehiaketa 12:00etan ospatuko da plazan. Parte-hartzaile guztiak akitu ondotik, irabazleen zerrenda jakinaraziko da eta sariak banatuko dira.

Lehiaketeran ondoren Olentzero eta Jaiotza guztiak, kaleetatik jaso beharko dira.

Bertalde, Olentzeroak xehetuz gero biltzeak suposatzen duen kostua Olentzero talde horrek ordaindu beharko du.

Lehiaketan parte hartzeko alde aitzinetik izena eman beharko da:

- Abenduaren 20, 21 eta 22 (09:00-14:00 Lesakako Udaletxeko bulegoetan eta 14:00-20:00 Liburutegian).



LESAKA

Egiatzen-aseguru kodea: AECA AYYC DQ47 XLUT ZV7Q

Olentzero eta Jaiotzen Lehiaketa 2023 - Araudia - SEFYCU 26538

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/> 2tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Lesakako Udaleko alkatea / El alcalde del Ayuntamiento de Lesaka
LADIS SATRUSTEGUI ALZUGARAY
2023/12/13



LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
lesaka@lesaka.eus

NIF: P3115200B

SERVICIOS CULTURALES Y DEPORTIVOS

Espedientea 54271C

SARIAK

OLENTZERO

A-10 URTE ARTE

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €

C-16 URTETIK GOITI

Lehena	600 €
2.a	400 €
3.a	300 €
4.a	200 €
5.atik aitzinera	150 €

JAIOTZAK

10 URTE ARTE

Lehena	80 €
2.a	70 €
3.a	60 €
4.a	50 €
5.a	40 €
6.etik aitzinera	30 €

B-11TIK 15 URTETARA

Lehena	120 €
2.a	110 €
3.a	100 €
4.a	90 €
5.etik aitzinera	80 €

11 URTETIK GOITI

Lehena	100 €
2.a	90 €
3.a	80 €
4.a	70 €
5.a	60 €
6.etik aitzinera	50 €



LESAKA

Egiaztapen-aseguru kodea: AECA AYYC DQ47 XLUT ZV7Q

Olentzero eta Jaiotzen Lehiaketa 2023 - Araudia - SEFYCU 26538

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>

2tik 2 orrialdea